



# IKASTETXE KATOLIKO ELEBIDUNEK HAIEN ATEAK IREKIKO DITUZTE

Euskarazko irakaskuntzaz mintzaten garelarik, ez da konfesionalak diren ikastetxeetan pentsatzen. Komunikazio faltagatik? Edo ezagutzarik ez delako? Irakaskuntza katolikoak, alta, bere lekua du! Irakaskuntza Katolikoaren Elizbarrutiko Zuzendaritzaren babesean, 50 ikastetxek euskarazko irakaskuntza elebiduna proposatzen dute Ipar Euskal Herrian: 32 ikastetxe, 12 kolegio eta 6 lizeo, 3800 ikasle baino gehiagorentzat ! 32 ama eskoletatik 21ek murgiltzea proposatzen dute (%100 euskaraz).

**Euskal Haziak** elkarteak, ikastetxe katoliko elebidunetako gurasoak, irakasleak eta zuzendariak biltzen ditu. Bere eginkizun nagusia irakaskuntza elebiduna sostengatzea eta sustatzea da, ikasleei urtean zehar euskarazko aktibitateak proposatuz (euskarazko ikusgarriak, ipuin idazte lehiaketa, Uda Lekuk antolatzen dituen egonaldietan parte hartzea), baita gurasoendako informazioa/sentsibilizazioa garatuz ere. Honako guztia, euskara eskolako ikasgelatik ateratzeko helburuarekin (familiendako agenda, euskarri ezberdinak).

Ikastetxe guztien federatzeko eta familiei Irakaskuntza Katolikoan euskarazko irakaskuntzaren presentzia ezagutarazteko, ate irekitze egun bat antolatua da 2025eko otsailaren 1ean, larunbat goizean. Ipar Euskal Herriko 32 eskolek, kolegioek eta lizeoek aldi berean ospatuko dituzte haien ate irekitzeak !

Parte hartuko dutenen zerrenda :

- **BAB:** Angeluko Stella Maris eskola / Arbonako Jondoni Laurendi eskola/ Miarritzeko Maria Saindua eskola.
- **Errobi:** Ezpeletako Jondoni Eztebe eskola/ Haltsuko Maurice Harriet eskola/ Itsasuko San Josep eskola/

Kanboko Santa Maria eskola eta San Mixel kolegioa/ Larresoroko San Martin eskola/ Uztaritzeko Jondoni Bixintxo eskola eta San Josep lizeoa/ Zuraideko Bihotz Sakratua eskola.

- **Hazparneko lurraldea:** Aiherrako eskola libroa/ Beskoitzeko Jondoni Bixintxo eskola.
- **Urdazuri:** Donibane Lohitzuneko Dona Maria kolegioa/ Hendaiako Jondoni Bixintxo eskola/ Senpereko San Josep eskola eta Arretxea kolegioa/ Urruñako San Frantses Xabier eskola/ Ziburuko San Mixel eskola.
- **Xiberoa eta Baxe Nafarroa:** Altzaiko San Luis eskola/ Aldudeko Mendi Alde eskola/ Baigorriko Donostei eskola eta kolegioa/ Donapaleuko Etxekopar eskola, kolegioa eta Errekart lizeoa / Donazaharreko San Mixel eskola/ Donibane Garaziko Santa Maria eskola eta Mayorga kolegioa/ Mauleko San Frantses kolegioa/ Ortaizeko San Mixel eskola.

Euskal Haziak bere sareko ikastetxeak bisitatzera gomitatzen ditu gurasoak, haien identitateak, proiektu pedagogikoak eta bertan lan egiten duten irakasleak hobeki ezagutzeko.

Ongi etorri gure ikastetxetara ! Elebidun bietan hobe !

---

Kontaktuak

Laetitia Eizmendi, lehendakaria 06 38 91 18 01

Arantza Eguiguren, koordinatzailearen ordezkoa 07 72 55 63 53